2024 • URTARRILA

# aballarri

EGAPE IKASTOLAKO BULETINA

EGAPE, URNIETARRON IKASTOLA PUBLIKOA

## EGAPETIK EGAPERA

Asko izan dira Egape Ikastolatik igaro diren urnietarrak, horietako batzuk, Egapekide ditugu berriz ere, ikasle izatetik, irakasle izatera igaroz. Hori da Unai Legarreta, Nagore Aroztegi eta Ane Louvelliren kasua, hirurek egin zituzten derrigorrezko ikasketak Egapen eta ibilian-ibilian, berriz ere, gure komunitateko kide dira egun, irakasle lanetan hain zuzen ere.

Hirurak elkartu ditugu eta azaldu dute ilusioz egin dutela itzulera eta harrera oso ona eta berezia jaso dutela. Ikasle ziren garaiko irakasle gutxi batzurekin egin dute topo. Unai orduko birekin elkartu da, harrera beroa egin diotela eta laguntza handia jaso duela eurengandik azaldu digu. Nagorek deskubrimendu bat bezala deskribatu du bere irakasle izandakoekin lanean jardutea, opari gisa hartu du. Anek, bere lehen ikasturte honetan, bere tutore izan zena izan du mailakide eta bidelagun.

Egape Ikastola ikasle zirela ezagutu zuten hirurek, egun langile gisa ari dira ezagutzen gure ikastetxea. Ikuspegia guztiz ezberdina dela adierazi du Unai ikastetxeak egiten duen lanaz ohartu da eta antolakuntza eta lan giroan jarri du azpimarra. Nagorek komunitatean jarri du arreta eta erronkatzat hartu du komunitate izaera horri jarraipena ematea. Bestalde, Aneren nahia berak txikitan bizitako esperientzia esanguratsuak beren ikasleei eskaini ahal izatea da.

Egape Ikastolako ikasle zirela eman eta jasotako bizipenek segida izango dute hortaz eta etorkizuna eraikitzen jarraituko dute Unai, Nagore eta Anek urnietarron ikastola publikoan.

*Este año entre el profesorado de Egape Ikastola nos encontramos con Unai Legarreta, Nagore Aroztegi y Ane Louvelli, urnietarras que realizaron sus estudios en nuestra Ikastola y que, tras años de formación y trabajo, han vuelto a nuestra comunidad como parte del claustro.*

*Hemos reunido a los tres y nos explican que han regresado con ilusión y que han recibido una muy buena acogida. Han tenido la oportunidad de reencontrarse con algunos profesores de entonces. Unai nos cuenta que trabaja ahora con dos de sus profesoras, que le han acogido calurosamente y que ha recibido mucha ayuda por su parte. Nagore ha descrito como un descubrimiento el hecho de trabajar con quienes fueron sus profesores y lo está viviendo como un regalo. En su primer año, Ane ha tenido como compañera de curso a quien fuera su tutora años atrás.*

*Los tres han pasado de conocer la Ikastola Egape como alumnos y alumnas a trabajar en ella. En este sentido, Unai ha señalado que el enfoque es totalmente diferente, se ha dado cuenta de la labor que realiza el centro y ha destacado la organización y el buen ambiente de trabajo. Nagore pone énfasis en el sentimiento de pertenencia a la comunidad, y toma como reto el seguir trabajando en favor de ella. Por su parte, el deseo de Ane es ofrecer a su alumnado la oportunidad de vivir experiencias significativas como las que vivió ella.*

*Unai, Nagore y Ane seguirán construyendo su futuro en Egape Ikastola, la Ikastola pública de Urnieta.*



# CURRICULUM BERRIA EGAPE IKASTOLAN

Curriculum dekretu berria dela eta, azken aldian etengabe hizketan dihardugu Hezkuntza komunitatean. Baina zer da curriculum dekretu berria? Zeri deitzen diogu curriculum dekretu berria?

Hitz gutxitan esateko, curriculum dekretu berriak ikaslea erdigunean jartzen du bere ikaskuntzaren ardatz izanik. Irakasleak bidaide, gidari, orientatzaile edo bultzatzaile gisa jardungo du ikasleak talde-lanera edo kolaborazio-lanera bultzatuz. Ikasleak dira euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria; horregatik, funtsezkoak dira haien ongizate emozionala eta zaintza, arrakastaren bermea eta inklusibitatea inguru seguru batean, XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki aurre egiteko.

Konpetentziak garatzen lagunduko dio eskolak ikasleari egoera errealetan oinarritutako benetako jardueren bidez lan eginez. Ebaluazio hezitzailea planteatuko da, izaera erregulatzailea duena, eta ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak hautematen dituena, ikaskuntza prozesua ikasleen beharretara egokitzeko.

Hizkuntza, informaziorako eta ezagutzaren eraikuntzarako atea izanik, ikasteko prozesuaren erdigunean dago. Hizkuntzen ikaskuntzari konpetentzia-ikuspegi globalizatu batetik heltzen zaio, arreta hizkuntzen eta jakintzen ikaskuntza integratuan jartzen duten metodologien bidez.

Eta Egape Ikastola hau dena egiteko prest ote dago? Jakina!! Ikastola ez da hutsetik hasiko, aurretik ere berrikuntzaren alorrean badugu eskarmentua, urratsak emanak ditugu, izan ere, gurean Heziberrin oinarritutako ikaskuntzan trebatuta gaude eta urrats berriak emateko ilusioa dugu.

# EL NUEVO CURRÍCULUM EN LA IKASTOLA EGAPE

*En los últimos tiempos estamos hablando constantemente del nuevo decreto curricular en la Comunidad Educativa. ¿Pero qué es el nuevo decreto curricular? ¿A qué llamamos nuevo decreto curricular?*

*En pocas palabras, el nuevo curricular pone al alumno y a la alumna en el centro, siendo el eje de su aprendizaje. El profesor o la profesora actuará como acompañante, guía, orientador o impulsor, incitando al alumnado al trabajo en equipo o colaborativo. El alumnado es la piedra angular del sistema educativo vasco, por lo que su bienestar emocional y su cuidado, la garantía de éxito y la inclusividad son fundamentales en un entorno seguro para afrontar los retos del siglo XXI personal, social y profesionalmente.*

*La escuela ayudará al alumno y a la alumna a desarrollar sus competencias trabajando a través de actividades basadas en situaciones reales. Se planteará una evaluación formativa, de carácter regulador, que detecte las dificultades y avances del alumnado para adecuar el proceso de aprendizaje a las necesidades del mismo.*

*La lengua, como puerta de entrada a la información y a la construcción del conocimiento, está en el centro del proceso de aprendizaje. El aprendizaje de las lenguas se aborda desde un enfoque competencial globalizado, a través de metodologías que centran la atención en el aprendizaje integrado de las lenguas y los conocimientos.*

*¿Y Egape Ikastola está preparada para todo esto? ¡Claro! La ikastola no va a empezar de cero, ya tenemos experiencia en innovación, hemos dado pasos previos, ya que en nuestro centro estamos formados en el aprendizaje basado en Heziberri y tenemos la ilusión de dar nuevos pasos.*







# EGAPE IKASTOLAN LEHEN URRATSAK

Haurraren lehen urteek berebiziko garrantzia dute haurraren garapenean. Etapa honetan, haurrak nortasunaren ezaugarriak, adimen eta gorputzaren gaitasunak eta harremanetarako oinarri eta trebetasunak eraikitzen hasiko dira. Hori oinarritzat hartuta, Egape Ikastolan ere Haur Hezkuntzako etapari garrantzi berezia ematea dugu xede.

Urnietako haurreskolan lehen bi urteak egiten dituztenek, eraikin berean izango dute aukera 2 urteko geletara jauzi egiteko, espazioari dagokion lotura eta ezagutza badute hortaz. Etxetik datozen haurrek, lehen aldiz igaroko dituzte eraikineko ateak, goxo eta norbanakoari egokitutako erritmoak errespestatuz eta zainduz.

Haur Hezkuntzako gainerako urteak Lizardi kaleko eraikinean egingo dituzte haur hauek. Eurak izango dira protagonista etapa guztian eta euren behar eta interesak oinarri izango dira eguneroko hezkuntza jardunean. Haurra izango da bere ikaskuntza-prozesua eraikiko duena, hezitzaileon egitekoa berriz, hori gauzatu dadin testuinguru aberats bat sortu eta eskaintzea izango da.

Haurrak eskolan etxean bezala sentitu daitezen dugu helburu, goxo, babestuak, maitatuak eta errespetatuak, konfidantzaz euren gaitasunak eraiki ditzaten.

Ibilbide honetan, familiaren partehartzea eta elkarlana ezin ahaztu. Eurak baitira gure haurren sostengu garrantzitsuenak, etxekoak.

# PRIMEROS PASOS EN LA IKASTOLA EGAPE

*Los primeros años del niño/a juegan un papel fundamental en su desarrollo. En esta etapa, los niños y niñas comenzarán a construir sus señas de identidad y sus capacidades intelectuales, corporales y de relación. En base a ello, en Egape Ikastola también pretendemos dar especial importancia a la etapa de Educación Infantil.*

*Quienes cursen los dos primeros años en la haurreskola de Urnieta, tendrán la oportunidad de dar el salto a las aulas de 2 años en el mismo edificio, por lo que ya tienen la conexión y el conocimiento del espacio. Los niños y niñas que vengan de casa pasarán por primera vez las puertas del edificio, y se respetarán y cuidarán los ritmos de cada niño/a.*

*El resto de los años de Educación Infantil los harán en el edificio de la calle Lizardi. Ellos serán los protagonistas de toda la etapa y sus necesidades e intereses serán la base de la práctica educativa diaria. Será el niño/a quien construya su propio proceso de aprendizaje, mientras que el papel de los educadores será crear y ofrecer un contexto rico para que se materialice.*

*Nuestro objetivo es que los niños y niñas se sientan en la escuela como en casa, protegidos, amados y respetados, para que construyan sus capacidades con confianza. Construiremos espacios y acciones que actúen con autonomía, dedicando tiempo a ello.*

*En este recorrido no se puede olvidar la participación y colaboración de la familia ya que ellos son el sustento más importante de nuestros niños y niñas, los de casa.*



# EGAPE

EGAPE IKASTOLA

## Urnietarron ikastola publikoa

## BILERAK
## ETA ATE REKIAK
## REUNIONES Y
## PUERTAS ABIERTAS



**HH 2 URTE**

**URTARRILAK**

**23**

17:00
Etxeberri
eraikinean

**DBH**

**URTARRILAK**

**24**

17:00
Azkorte
Kalea

**2 AÑOS INFANTIL**

**23**
de ENERO

17:00
Etxeberri
plaza

**ESO**

**24**
de ENERO

17:00
Azkorte
kalea


EGAPE IKASTOLA

Etxeberri 3/4, Urnieta.
943 00 95 58
egape@egape.eus

Lizardi kalea, 5, Urnieta.
943 00 92 75
egape@egape.eus

Azkorte kalea z/g, Urnieta.
943 89 94 25
egapebhi@egape.eus


Eskola Jasangarria Ziurtagiria

KALITATEA HEZKUNTZAN